



242/2015 FORU DEKRETUA, urriaren 14koa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua erakunde autonomoa sortu eta bere estatutuak onesten dituen uztailaren 18ko 63/2012 Foru Dekretua aldatzen duena.

31. artikuluaaren aterakina

q) Lanerako ezintasuna bere modu guztietan zaindu, kontrolatu eta ebaluatzea, Lehendakaritza eta Barneko kontseilariaren abenduaren 5eko 703/1996 Foru Aginduan jasotako aldi baterako ezintasun egoerak eta baja eta altak kontrolatzeko prozedurak barne direla, eta langileei informazioa, aholkuak eta laguntza ematea ezintasunei loturiko alderdien gainean.

r) Aldi baterako ezintasunaren prozesuen gaineko informazio eta azterketa sistemak ezarri eta mantentzea, nagusiki aldi baterako ezintasunaren lan eta gizarte arloetako determinatzaileak ezagutzeko eta haietan esku hartzeko.

s) Aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko behar diren jarduketak garatzea, eskatzen duten instituzio eta erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean, laneko ezintasunei dagokienez, aldi baterako ezintasunaren prestazioan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzako Osasun Laguntzako, Laguntza Espezializatuko eta Osasun Mentaleko osasun laguntzako mailen artean lankidetzaz sustatuz bereziki.

t) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuan dauden langileen ikuskatzailatza medikoa egin eta, besteak beste, alta medikoak ofizioz emateko eginkizunetan, Nafarroako Lan Osasunaren Institutua aritzeko prozedura arautzen duen ekainaren 28ko 203/1993 Foru Dekretuan ezarritako eginkizunak betetzea. Besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuan dauden langileei alta medikoak ofizioz emateko eginkizuna, eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari Nafarroako Ospitaleko Epaimahai Medikoaren eskumenak transferitzen dizkion eta ezintasun egoerak ebaluatzeko prozedura arautzen duen urtarrilaren 31ko 27/1994 Foru Dekretuan ezarritakoak.

u) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere erakunde autonomoetako enplegatugaien osasun azterketak egitea.

v) Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutualitateen osasun jarduketak ebaluatzea eta haien jarraipena eta aholkularitza egitea, kontingentzia arrunten, kontingentzia profesionalen eta haurdunaldirako eta edoskitzerako lan arriskuen kasuetan.

w) Prestakuntza eta Informazio Unitatearekin bat, aldi baterako ezintasunaren kudeaketari eta Gizarte Segurantzaren sistemaren prestazioei lotutako prestakuntza programen plangintza egitea.

x) Arlo hauetako espezialisten prestakuntzan parte hartzea: Lan arloko Medikuntza eta Erizaintza, Familia- eta Komunitate-Medikuntza, Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa eta zerbitzu honen laguntza eskatzen duten beste espezialitate batzuk.